



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko otsailaren 22an

11 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa. Emendakinak aurkezteko epea (3. or.).
- San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena. Emendakinak aurkezteko epea (3. or.).
- Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamena. Emendakinak aurkezteko epea (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Haur etorkinen eskolatzeari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak egin (5. or.).
- Bardean egin diren jarduerari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak egin (6. or.).
- “Ingurugiroaren Kudeaketa” programaren fiskalizazio txostenari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak egin (6. or.).
- Nafarroako zenbait herrik “Errioxa” jatorrizko deituran sartzeko eskaria egin izanak mahats-ardoaren sektorean izan ditzakeen eraginei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egin (8. or.).
- Ingurugiroaren kudeaketaren programari dagozkion inbertsioen 1997ko betetze-maila apalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egin (9. or.).
- GIBari aurrea hartzeko Nafarroako gizarte-antolamenduei Estatuko Gobernuak ematen dizkien laguntzak murrizteari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egin (10. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko maiatzean bidali dituen Erabakiaen, Foru Aginduaren eta Ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (11. or).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrak, 1999ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko azaroaren 24ko 91 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzko

Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proposamen horri buruz Irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea** irekiko da, **1999ko martxoaren 12ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrak, 1999ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko azaroaren 24ko 91 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proposamen horri buruz Irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea** irekiko da, **1999ko martxoaren**

12ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamena

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrak, 1999ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko abenduaren 16ko 95 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artiku-

lu aldatzen dituen Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proposamen horri buruz Irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea** irekiko da, **1999ko martxoaren 12ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

Haur etorkinen eskolatzeari buruzko galdera*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak haur etorkinen eskolatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestequí

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Espainia Europako Batasunean sartu denez, eta Europako arauak Batasunaren barrenean joan-etortzeko askatasuna ezartzen dutenez, Espainian bizi den Europako edozein langilek eta bere seme-alabek eskubidea dute beka edo laguntzak jasotzeko, baldin eta eskatutako beste baldintzak betetzen badituzte.

Bestalde, Espainian dauden Atzerritarren Eskubide eta Askatasunei buruzko Lege Organi-

koak aintzat hartzen die hezkuntza eskubidea Espainian legez dauden atzerritarrei, beti ere, indarrean dauden xedapenen arabera eta elkarrekotasun hatsapena kontuan hartuta; beraz, pertsona horiek beka edo laguntzak jasotzeko eskubidea badutela ondoriozta dezakegu.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren ondorioz Nafarroako Foru Komunitateak hezkuntza arloan dituen eskumenak kontuan izanda, eta baita ikasketetarako beka eta laguntza arloan ere, hauxe jakin nahi da:

- Zer laguntza jartzen ditu Nafarroako Gobernuak etorkinen seme-alaben esku –Europa Ekialdeko eta Afrika Iparraldeko etorkinen seme-alaben esku, bereziki– eskolan bertakotu daitezen?

- Nafarroako Gobernuak 1998-1999 ikasturterako eginiko deialdiari esker, zenbat atzerritarrek izan du ikasketetarako beka eta laguntzarik?

- Zer jarduketa edo neurri aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, hurrengo ikasturtean benetan izan ditzaten ikasketetarako beka eta laguntzak?

Iruñean, 1999ko otsailaren 8an

Foru Parlamentarioa: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Bardean egin diren jardueri buruzko galdera

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Bardean egin diren jardueri buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarragak, "Ezker Abertzalea" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Bardeetan, azken bost urte hauetan eginiko zenbat jarduera egin dira aipatu departamentuak horren berri izanda?

2.- Zenbat jarduera egin dira departamentu horren baimenarekin?

3.- Horietarik, zenbatek behar zuten baimena?

4.- Zer egoeratan daude jarduketa horiei buruzko espedienteak?

5.- Espediente horietakoren bat dela-eta, hasi al da zehapen-prozeduraren bat?

6.- Zein izan da arrazoia?

7.- Baimena behar zuten zenbat jarduera egin dira baimenik gabe, Bardeetako Natur Baliabideak Antolatzekeo Planaren aurrerapen eta proiektua tramitatzen ari zen bitartean?

8.- Hori horrela izanik, hartu al da inongo neurririk?

Iruñean, 1999ko otsailaren 10ean

Foru Parlamentarioa: Pedro Romeo Lizarraga

“Ingurugiroaren Kudeaketa” programaren fiskalizazio txostenari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak "Ingurugiroaren Kudeaketa" programaren fiskalizazio txostenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren "Ingurugiroaren Kudeaketa" programaren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostenak zenbait ondorio eta muga adierazten ditu; muga orokor gisa, hauxe: "lan honen helburuetako bat lortzeko zailtasuna, hau da, programa betetzerakoan lortu den eraginkortasun eta ekonomia mailak aztertzekeo zailtasuna, helburuak eta adierazleak, programaren aurkezpenean, ez baitaude behar bezala zehaztuta eta zenbatekotuta, eta ez baita egin planak izan duen egokitze eta betetze mailaren jarraipen sistematikorik."

Horregatik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren "Inguru-

giroaren Kudeaketa" programa dela eta, Nafarroako Gobernuak ondokoak erantzun ditzan nahi da:

1.- Egin beharreko jardueraren helburuak ez zeuden zenbatekotuta eta ezta aurrekontuko kredituekin lotuta ere. Zergatik?

2.- Egin beharreko administrazio kudeaketa besterik ez dute zenbatekotzen adierazleek. Zergatik?

3.- Zergatik ez da egiten helburuen burutze eta betetzeari buruzko berariazko jarraipenik?

4.- Zergatik ez da egiten urtero ekitaldi horretan eginiko jarduketan oroit-idazkirik?

5.- Zergatik hartzen dira inbertsioetat edo kapital transferentziatzat Nafarroako Gobernuarenak ez diren mendiak xede dituzten zenbait gastu?

6.- Zergatik izan dira handiagoak Namainsa enpresa publikoari eginiko transferentziak enpresa horrek izan dituen gastuak baino, kontuan izanik alde hori enpresak izan dituen irabazien parekoa dela?

7.- Ureztatzaileen elkartearekin hitzarmena sinatu da Murillo de las Limas-eko lekune naturala zain dezaten 2,7 milioi pezetaren truke. Zergatik ez zaio inongo prozedurari jarraitu hitzarmen hori sinatzerakoan?

8.- Zergatik ez da behar bezain garbi gelditu Irabiako pista konpontzeko obraren proiektua eta onetsitako diru kopurua? Nafarroako Gobernuak, obra horretan bertan, obraren ehuneko 62 bere gain hartu, eta zergatik ordaindu ditu proiektuaren ordainsari guztiak, 6,9 milioi guztira? Zergatik jo da hormigoizko bide hori suteei aurre egiteko azpiegituratzat, hori bainoago, baso-ustiapenetara heldu ahal izateko bidea izanik?

9.- Zergatik daude osatu gabe, txosten faltan, zenbait espediente?

10.- Konkurrentziarik izan ez den lanetan, zergatik ez da argi gelditu lanagatiko kontraprestazioak ezartzeko jarraitutako sistema?

11.- Nafarroako Gobernuak ados al dago Kontuen Ganbarak esan duenarekin, hau da, Ingurugiro Departamentua erabat sendotu gabe dagoela eta duen barne egitura etengabe aldatzen dela?

12.- Basa Fauna babesteari buruzko Foru Legeak aurreikusitako neurriak ez dira kontuan izan –bereziki, mehatxatutako espezieak babesteko planak ez dira onetsi eta jendaurrean jarri–, eta, beraz, kudeaketak hutsuneak izan ditu. Zergatik?

13.- Zergatik ez dira aurretik irizpideak ezartzen, espezieak babesteko erabiltzen diren baliabideak hobeki aprobetxatzeko?

14.- Posusaren instalazioen ingurugiro-berreskuratzea atzeratzen ari da, exekuzio maila txikia du, Departamentua eta Namainsaren artean ez dago behar adinako koordinaziorik, eta eginkizunak eta ardurak ez dituzte argi eta garbi bereizturik. Zergatik?

15.- Zer neurri hartzea pentsatu du Nafarroako Gobernuak Kontuen Ganbarak adierazitako arazo guzti horiei aurre egiteko?

16.- Zer neurri zehatz hartzea aurreikusi du, eta zer epetan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak? Departamentuak zer epetan ezarriko ditu Foru Komunitateko ingurugiroaren eboluzioa ezagutzeko beharrezko diren elementu horiek, hau da, adierazleak, benetako jarraipena, eta amaierako oroitidazkia?

Iruñean, 1999ko otsailaren 12an

Foru Parlamentarioa: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Nafarroako zenbait herrik “Errioxa” jatorrizko deituran sartzeko eskaria egin izanak mahats-ardoaren sektorean izan ditzakeen eraginei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako zenbait herrik “Errioxa” jatorrizko deituran sartzeko eskaria egin izanak mahats-ardoaren sektorean izan ditzakeen eraginei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Jakin ahal izan dugunaren arabera, joan den udatik hona, Nafarroako hamahiru udalek eskatu dute beraien lurraldetako mahastiak “Errioxa” jatorrizko deitura kalifikatuan sartzea. Errioxako Kontseilu Arauemailearen Idazkaritzan sartu diren eskariak hurrengo udaletatik datoz: Armañanzas, Cárcar, Desojo, Busto, Esprontzedá, Funes, Elizagorria, Lodosa, Los Arcos, Santsol, Sesma, Torralba del Río eta Torres del Río. Beste berri batzuren arabera, Cintruénigo eta beste herri batzuk ere aztertzen ari omen dira “Errioxa” jatorrizko deitura kalifikatuaren Kontseilu Arauemailean sartzeko eskaria egiteko aukera.

Eskari horiek eztabaida moduko bat sortu dute mahats-ardoaren sektorean eta nekazaritza-erakundetan, gai horri buruzko iritzi ezberdinak daude-eta.

Nafarroako zenbait herrik “Errioxa” jatorrizko deituran sartzeko eskaria egin izanak mahats-ardoaren sektorean izan ditzakeen eraginak direla-eta, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ba al daki Nafarroako zenbat herrik eskatu duen “Errioxa” jatorrizko deituran sartzea? Ba al daki beste herriren batzuk aztertzen ari diren “Errioxa” jatorrizko deituran sartzeko eskaria egiteko aukera? Zeintzuk dira, kasuetako bakoitzean?

2.- Bere arauekin bat etortzeagatik, “Errioxa” jatorrizko deiturak egokitzen jotzen baditu eskariok: zer pauso jarraitu beharko liriteke eskariak izapidatu eta aipatu deituraren barruan sartzeko, behin-betikoz? Zer entitate, organismo edo erakundek eman beharko lukete iritzia eskarion aurrean?

3.- Edonola ere, Nafarroako Gobernuak oniritzirik eman behar al du aipatu herriak -edo eskaria egin dezakeen beste edozein- deitura horretan sartzeko? Zein da Nafarroako Gobernuaren jarra-egoera honen aurrean?

4.- Aipatu herriak “Errioxa” jatorrizko deituran sartuz gero, zer gerta daiteke gure erkidegoak berezko duen “Nafarroa” jatorrizko deituran? Eta Nafarroako mahats-ardoaren sektorean?

5.- Nafarroako Gobernuak harremanik izan al du, edo harreman-asmorik, Errioxako Gobernuko Nekazaritza Kontseilaritzarekin, “Errioxa” jatorrizko deituraren Kontseilu Arauemailearekin eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin? Zeintzuk izan dira harremanon emaitza-ondorioak? Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu gaia aztertzea, Nafarroako mahats-ardoaren sektoreko nekazaritza erakunde ordezkatzailekin batera?

6.- Nafarroako Gobernuak aztertu al du egokia ote den “Nafarroa” jatorrizko deitura erabat sartzea “Errioxa” jatorrizko deituraren barrura? Edonola ere, zer irizpide erabili dira, alde batera edo bestera?

Iruñean, 1999ko otsailaren 12an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Ingurugiroaren kudeaketaren programari dagozkion inbertsioen 1997ko betetze-maila apalari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ingurugiroaren kudeaketaren programari dagozkion inbertsioen 1997ko betetze-maila apalari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaitoten:

Nafarroako Kontuen Ganbararen fiskalizazio programak aurreikusitakoaren arabera, "Ingurugiroaren kudeaketa"ri buruzko aurrekontu-programaren kudeaketa fiskalizatzeko txostena egin behar zuen 1998an. Aipatu programa hori Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baitan dago. Txostenaren berri izan dugu, eta, dioenaren arabera, aipatu programan aurreikusitako gastuen ehuneko 83 bete zituen Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, 1997ko ekitaldian. Hauxe dio, hain zuzen ere: "Inbertsioen kapituluan dago Ingurugiroaren kudeaketaren programari dagozkion gastuen exekuziorik apalena: hasierako aurrekontuaren %70. Betetze-maila apal hori 13 kontabilitate-lerrotan gauzatzen da; izan ere, 356,5 milioi pezetako hasierako aurrekontua izanik, 100,6 milioi pezeta jotzen duten jarduketak besterik ez dira bete, aurreikusitako gastuaren %28, alegia".

Ingurugiroaren kudeaketaren programari dagozkion inbertsioen 1997ko betetze-maila apala dela-eta, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1.- Gatz hondakindegia zuzentzeko izendatu ziren 60 milioi pezetatik, zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako

Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearen azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

2.- Eremu degradatuak bereonatu eta ingurugiro-eraginak zuzentzeko izendatu ziren 24 milioi pezetatik, zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearen azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

3.- Lurzoruetoako kutsadura kentzeko izendatu ziren 43 milioi pezetatik, zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearen azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

4.- Bioaniztasuna zaintzeko izendatu ziren 10 milioi pezetatik, zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearen azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

5.- Landare-estalkia hobetu eta zuzentzeko izendatu ziren 65 milioi pezetatik, zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearen azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

6.- Baso-suteei aurrea hartzeko izendatu ziren 50 milioi pezetatik, zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearen azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

7.- Basoak baso-suteetatik begiratzeko proiekturako izendatu ziren 65 milioi pezetatik,

zer aurrekontu bete zen, benetan, 1997ko abenduaren 31rako? Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer balorazio egiten du aipatu kontusailaren aurrekontu-betetzearan

azken portzentaiaz? Zer arrazoi izan da horretarako?

Iruñean, 1999ko otsailaren 15ean

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

GIBari aurrea hartzeko Nafarroako gizarte-antolamenduei Estatuko Gobernuak ematen dizkien laguntzak murrizteari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak GIBari aurrea hartzeko Nafarroako gizarte-antolamenduei Estatuko Gobernuak ematen dizkien laguntzak murrizteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Osasun Bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Gaisotasun kronikoek jotako gizarte-taldeei –gaixo mentalak, GIB-Hiesak edo drogamenpekotasunak jotakoak– laguntza ematen diharduten Nafarroako gizarte-antolamenduek Estatuko Gobernuaren laguntzak jaso izan dituzte, aurtendaino, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren eta Osasun eta Kontsumo Ministerioaren bitartez.

Aurtendanik, ordea, murriztu egin dira Nafarroako gizarte-antolamenduen laguntza-programetarako laguntzak. Madrildik esan dutenaren arabera, Estatu osoan ari diren entitateentzako baizik ez dira izanen 1999tik aitzina emanen dituzten laguntzak.

Horren ondorioz, aurrekontu-murrizketa gogorra jasan dute erakunde batzuek, eta jarduteko gaitasuna gutxitu egin zaie; Nafarroako 1999ko aurrekontuek ez dute murrizketa hori berdindu, ordea.

Baliabide-galera horren ondorioz, Anasaps-ek, esate baterako, etxez etxeko laguntza-programa eten behar izan du, aurrekonturik ezean; Nafarroako Hiesaren aurkako Herritar Batzordeak ere galdu du Estatuaren finantzazioa, 1997an 2,780 milioi pezeta, eta 1998an 2,900 milioi pezeta jaso bazituen ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1) Nafarroako zenbat elkartek galdu du Madrilek Nafarroan programak garatzeko ematen zuen finantzaketa?

2) Zer neurri erabiltzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak hurrengo aurrekontu-ekitaldietarako, aipatu elkarteek jasan duten fondo-galera dela-eta?

3) Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Estatuko laguntzarik jaso ez duten gizarte-antolamenduen fondo-galerak berdintzea 1999an?

4) Hiesari aurrea hartzeko programak koordintzeko Batzorde Nazionalaren kasuan, biztanleen eta jakinarazitako Hies-kasuen zenbatekoaren arabera banatzen dira laguntzak. Irizpide bera erabiliko al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hiesaren aurkako Herritar Batzordeak galdu duen estatu-laguntza berdintzeko?

Iruñean, 1999ko otsailaren 15ean

Foru Parlamentarioa: M^a Isabel Arboniés Bermejo

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko maiatzean bidali dituen Erabakiaen, Foru Aginduaren eta Ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1998ko maiatzean Nafarroko Parlamentura bidali ziren Erabakien, Foru Aginduaren eta Ebazpenen bidez gauzatutako aurrekontu-aldaketen legezkotasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu Erabakiei, Foru Aginduari eta Ebazpenei buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“Nafarroako Gobernuak, 1998ko apirilaren 6an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuak "Laguntzak Nafarroaz kanpoko nafar bilguneei" kontusailean (lerroa, 00620-7; zenbatekoa, 21.000.000 pezeta) kreditua gehitzeko egin duen eskaria -izan ere, ez baitago aurrekontuan diru aski 1998. urtean zehar sortu diren laguntza beharrei aurre egiteko-, beharrezkoa da kreditu transferentziak egitea beste kontusail batzuetatik, hain zuzen ere oraingo ekitaldi ekonomikoaren bukaeran diru-gerakinak izanen dituztela aurreikusten den kontusailetatik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoiei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren

kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

Lehena. 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan kreditu-transferentziak egitea ondoko kontusailetatik:

02200-4809-2231 "Bekak suhiltzaile ikasleen prestakuntza-ikastaroetarako" kontusaila; proiektua, 50004; lerroa, 04510-5; zenbatekoa, 4.000.000 pezeta.

21100-4600-9121 "Biztanleen erregistroa zabalik mantentzea" kontusaila; proiektua, 11000; lerroa, 09680-0; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta.

32200-4459-4311 "Dirulaguntzak zaharberitze bulegoetarako" kontusaila; proiektua, 20000; lerroa, 11040-3; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta.

51000-4600-4139 "Udal osasungarrien itunak" kontusaila; proiektua, 00000; lerroa, 15670-5; zenbatekoa, 2.000.000 pezeta.

62120-4600-5133 "Iruñerriko garraio publikoko ekarpena" kontusaila; proiektua, 30000; lerroa, 25560-6; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta.

71220-4700-7123 "Europako Nekazaritza Politika aldatzea. Ingurugiro programak"; proiektua, 50002; lerroa, 97087-9; zenbatekoa, 3.000.000

93100-4810-3132 "Itunak eta itunpeko egonaldia kanpoko egoitzetan" kontusaila; proiektua, 22002; lerroa, 33040-3; zenbatekoa, 2.000.000 pezeta.

95120-4809-4571 "Dirulaguntzak kirol jardueretarako eta kirol sustapenerako" kontusaila; proiektua, 40001; lerroa, 34500-1; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta.

Ondoko kontusailera: 01400-4810-1269
"Laguntzak Nafarroaz kanpoko nafar bilguneei;
proiektua, 10002; lerroa, 00620-7; zenbatekoa,
21.000.000 pezeta.

Bigarrena. Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura, Toki Administrazio Departamentura, Ingurugiro Departamentura, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, Osasun Departamentura, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura, eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Aurrekontu eta Kontabilitate Ataletara eta aipatu Departamentuetako kontuhartzailatza delegatura."

"173/1998 EBAZPENA, apirilaren 2koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehi-kuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Tributu Zerbitzuak egin duen eskaria; horren bidez kreditu-gehi-kuntza eskatu da kontusail honetan: izena, "Berandutze korrituak"; lerroa, 08595-6; zenbatekoa, 3.398.067 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoein finantzatu da: izena, "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikuluan 1. puntuko n) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bitartez eskualdatu zizkidaten eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehi-kuntza egitea ondoko kontusailean: 12250-3402-6131 "Berandutze korrituak"; proiektua, 22002; lerroa, 08595-6; zenbatekoa, 3.398.067 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoein kargura finantzatu da: 11400-8700 "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Tributu Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailatza Delegatura.

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

"174/1998 EBAZPENA, apirilaren 2koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak ondoko kontusailean kreditua sortzeko egin duen eskaria: izena, "Kapital-transferentziak Pyme ekinbideko ekintzak garatzeko"; lerroa, 29975-1; zenbatekoa, 18.900.000 pezeta. Estatuko Administrazioak emanak, Pyme ekinbideen enpresa garapenerako ondoko kontusailean dauden dirusarreraren bidez finantzatu da: izena, "Enpresa txiki eta ertainen Politikaren Zuzendari-tzaren transferentzia, Pyme ekinbideko ekintzak garatzeko"; lerroa, 39205-8; zenbatekoa, lehengo bera.

